

ANAITASUNA



ANAITASUNA

ESTATUTUAK

# AURKIBIDEA

<b>I. TITULUA</b>	
IZENA, HELBIDEA, LURRALDE-EREMUA ETA XEDEAK	1
<b>II. TITULUA</b>	
BAZKIDEAK ETA GAINERAKO ELKARTEKIDEAK	2
Bazkideak	2
Elkartearen beste kide batzuk	5
Zehapen araubidea	6
<b>III. TITULUA</b>	
ZUZENDARITZA ORGANOAK ETA ATALAK	10
Batzar Orokorra	10
Batzorde Nagusia	12
Zuzendaritza Batzordea	15
Elkarteko Lehendakaria	17
Atalak	18
<b>IV. TITULUA</b>	
HAUTESKUNDE ARAUBIDEA	19
Hauteskunde Batzordea	19
<b>V. TITULUA</b>	
ONDAREA ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK	21
<b>VI. TITULUA</b>	
ELKARTEAREN LIBURUAK	23
<b>VII. TITULUA</b>	
ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDAREAREN ERABILERA	23
Azken Xedapenak	24
Azken Eginbidea	24

# ANAITASUNA K.K.A.E. ESTATUTUAK

1952ko irailaren 27an sortu zen, C.D. Anaitasunak, 1946ko abuztuan sortua (C.D. Hércules eta C.A. Mosquera batu ondoren) eta Peña Anaitasunak, Kirol taldekoek osatua (1949. urtean sortua), bat egin ondoren. Elkarateak hamalau zenbakia du Nafarroako Gobernu Zibilaren Elkarate Erregistroan.

---

## I. TITULUA

### IZENA, HELBIDEA, LURRALDE-EREMUA ETA XEDEAK

---

**1. artikulua.-** Elkaratearen izena da "ANAITASUNA KULTURA, KIROL ETA AISIALDI ELKARTEA".

**2. artikulua.-** Elkaratearen helbidea Iruñean da, López-Sanz doktorearen kalean, 2. zenbakian.

**3. artikulua.-** Lehentasunez, Elkarateak Nafarroan garatuko ditu bere ekintzak. Hala ere, beste lurralde-eremu batzuetan ere jardun ahalko du kultura, kirol nahiz aisialdiaren arloko jarduerak hala galdatuz gero. Bandera zuri-berdea eta armarrria dira elkaratearen nortasun-ezaugarriak.

**4. artikulua.-** Elkaratea politika nahiz erlijio mailako edozein ideologiatatik kanpo dago eta, bazkideen ideiekiko begirunea gordez, ondoko xede hauek ditu:

a) KULTURAREN ARLOKOAK: giza elkartasunarekin zein kulturarekin zerikusia duen edozein agerpen garatzea.

b) KIROLAREN ARLOKOAK: kirol jarduerak burutu eta bultzatzea, bai elkarate mailakoak bai federazio mailakoak ere.

c) AISIALDIAREN ARLOKOAK: bazkideei aisialdirako eta atseginaldirako instalazio eta zerbitzuak ematea.

---

## II. TITULUA

### BAZKIDEAK ETA GAINERAKO ELKARTEKIDEAK

---

**5. artikulua.-** Elkarateak honako elkaratekide mota hauek ditu:

a) BAZKIDEAK: dagokien sarrera kuota ordaindu (unean uneko zenbatekoan eta moduan) eta Elkaratearen Bazkide Erregistroan dauden gizabanakoak.

b) KIROLARIAK EDO LAGUNTZAILEAK: bazkideak izan gabe, Elkarateak antolatzen dituen kirol jarduetara joan eta haietan parte hartzen duten edo Elkaratearen zerbitzuan aisialdi nahiz kulturaren arloko jardueraren batean laguntzen duten gizabanakoak, betiere Estatutu hauek 12. artikuluan elkaratekide mota honetarako finkatzen dituzten beharkizunak betetzen badituzte.

Bazkidetasuna norberarena eta besterenganaezina da.

## I. KAPITULUA

### BAZKIDEAK

**6. artikulua.-**

**A. BAZKIDEGAIK**

1) Haurrak. Mota honetakoak dira bi urtetik bederatzirter bitarteko adingabeak, biak barne, sarrera kuota ordaindu badute.

2) Gazteak. Mota honetakoak dira hamar urtetik hamazazpirter bitarteko adingabeak, biak barne, sarrera kuota ordaindu badute.

Haur eta gazte kategorietako bazkidegaia izateko ezinbestekoa da bazkidea den arbaso zein tutore bat edukitzea, baldin horren ardura espresuki hartzen badu eta Zuzendaritza Batzordeak baimentzen badu. Haurra edo gaztea adinagusia den arte hartu beharko du ardura hori eta, uko egiten badio, adingabeak une horretan berean utziko dio bazkidegaia izateari.

## **B. BAZKIDEAK**

Bazkide Helduak.

Ondoko hauek dira bazkide heldua izateko bideak:

- a) Zuzen-zuzenean, bazkidegai gaztea izanda, hemezortzi urte betetzea.
- b) Bazkide baten ezkontidea izanda, sarrera kuota ordaintzea.
- c) Hemezortzi urtez gorakoa izan eta sartzeko eskaera egitea, betiere Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita, eta sarrera kuota ordaindu ondoren.

Zuzendaritza Batzordeak mugatuko du 3) atalean aurreikusiriko sarbide motaren bidez bazkide izan daitezkeen lagun kopurua, instalazio eta zerbitzuen kapazitatearen arabera.

Ezkontideei buruz egiten diren aipamenek barne hartzen dute bazkidearekin bizi den bikote egonkorra ere, betiere uztailaren 3ko bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko 6/2000 Foru Legean adierazitako eremuaren eta betebeharraren barruan, eta frogatzen badute betebeharroriek betetzen dituztela bizi diren Udalak edo gaitutako agintari batek emandako ziurtagiri baten bidez. Agintari horren gaitasuna legezko xedapen batek emana izango da.

## **C. OHOREZKO BAZKIDEAK**

Ohorezko bazkideak dira Elkarteari emandako zerbitzu nabarmenengatik bereizgarri hori merezi izan duten bazkideak. Batzorde Nagusiak izendatuko ditu Ohorezko Bazkideak, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta.

Bazkide guztiei bazkide-txartela emango zaie, bazkidea dela frogatu ahal izateko. Soil-soilik jabeak erabili ahalko du bazkide-txartela.

## **7. artikulua.- ALDI BATERAKO BAJAK**

Edozein bazkidek eskatu ahalko du aldi baterako baja Elkartean, ondoren aipatzen diren arrazoiak eta egoerak direla medio:

- Bizilekuaz aldatzea: Baja mota hau bazkidea Nafarroatik kanpoko bizileku batera aldatzen denean emango da. Gutxienez urtebeteko epe baterako emango da eta luzatu ahalko da, urtero, justifikatu ondoren.
- Salbuespenezko zioak: Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta baloratuko ditu zio horiek kasu bakoitzean.

Aldi baterako bajak dirauen denboraren barruan eten egiten dira bazkidearen eskubide zein betebeharrak guztiak.

Bazkide bat aldi baterako bajan dagoen bitartean, gainontzeko bazkideek ohiz kanpoko diru-ekarpen bat egin behar izan badute (mantenimenduzko ohiko kuotez gain), Elkartean alta hartzean bazkide horrek ohiz kanpoko kuota horiek ordaindu beharko ditu. Betiere, ordainketa atzeratua adostu ahalko da, baldin Zuzendaritza Batzordeak hala baimentzen badu.

**8. artikulua.-** Ondoko zioengatik utziko zaio bazkide izateari:

- a) Bazkidearen heriotza.
- b) Borondatezko baja.
- c) Kuoten ordainketan lau hilabetez gorako atzerapena edo Elkartearekin beste zor batzuk izatea, interesatuari jakinarazi ondoren.
- d) Zehapen prozedura baten bidez kanporatua izatea.

**9. artikulua.-** Honako hauek dira bazkideen eskubideak:

- a) Elkartearen gobernu eta administrazio organoetan hautesle eta hautagai izatea, betiere Estatutu hauek finkatzen duten eran.
- b) Elkartearen instalazioak erabili eta haiei onura ateratzea.
- c) Zuzendaritza Batzordeari arrazoizko kexak eta iradokizunak idatziz igortzea.
- d) Espedientea bideratu behar zaionean, edo zehapena ezartzeko jarduketak egiten ari direnean, mintzatu ahal izatea.

**10. artikulua.-** Honako hauek dira bazkideen betebeharrak:

- a) Estatutuak, Barne-eraentzako arautegiak, eta Elkartearen zuzendaritza organoek haien eskumen-esparruen barruan baliotz hartzen dituzten akordio eta erabakiak betetzea.
- b) Kuotak ezarritako epe eta eran ordaintzea. Hala egin ezean, horregatik sorturiko gastuak ordaindu beharko dira.
- c) Norberaren datuetan edo helbidean gertatzen den aldaketa oro, bai eta Elkartearentzat garrantzizkoa izan daitekeen eta bazkide izaerari eragin ahal dion beste edozein gorabehera ere, jakinaraztea.
- d) Behin betiko baja borondatezkoa idatziz jakinaraztea.

## II. KAPITULUA

### ELKARTEAREN BESTE KIDE BATZUK

**11. artikulua.**- Kategoria honen barruan daude, bazkidea izan gabe, Elkartearekin nolabaiteko lotura duten pertsonak, aldi baterako eta jarduera jakin batzuk egiteko, betiere Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita, Ataletako ordezkariak proposatu ondoren.

Aldi baterako lotura horrek diaruen bitartean, Elkartearen instalazioak eta zerbitzuak erabili ahalko dituzte.

**12. artikulua.**- Ondokoak dira kategoria hau osatzen dutenak:

a) **KIROLARIAK:** bazkideak izan gabe eta Zuzendaritzako Kirol ordezkariak proposatuta, Elkartek antolatzen dituen kirol jarduetara joan eta haietan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten pertsonak.

b) **LAGUNTZAILEAK:** bazkideak izan gabe, Elkartearen zerbitzuan aisialdi nahiz kulturaren arloko jardueraren bat egiten duten pertsonak, betiere dagokion ataleko ordezkari ardura-dunak proposatuta.

Bi kategorietan funtzionamenduko baldintza berezi batzuk bete beharko dira:

- Estatutuak, Barne-eraentzako arautegiak, eta Elkartearen zuzendaritza organoek haien eskumen-esparruen barruan baliotzat hartzen dituzten akordio eta erabakiak betetzea.

- Haien parekoa den bazkidearen mantenimendu-kuota ordaindu beharko dute.

- Norberaren datuetan edo helbidean gertatzen den aldaketa oro, bai eta Elkartearentzat garrantzizkoa izan daitekeen eta bazkide izaerari eragin ahal dion beste edozein gorabehera ere, jakinaraztea.

- Bazkide guztiek bete behar dituzten bizikidetzara-arauek gordetako dituzte.

- Ezin izango da atal batekoa izan atal horretako ordezkariak emandako adostasun berariazkoa izan gabe.

- Instalazioetan sartu ahal izateko elkartekide-txartela izango dute, urtero berriro ahal izango dutena.

- Elkartekide-txartel honek ez du beste ezertarako eskubidea emango eta Anaitasuna Elkartean jarduera bukatu ondoren iraungiko da.

### III. KAPITULUA ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### **13. artikulua.-** Antolamenduzko arauak.

Arau hauen xedea da Elkartearen giroan begirunea zaintzea ohiko bizikidetzan, antolamendu teknikoan eta Elkartearen antolaketa, bai eta elkartekideen interes legitimoak eta eskubideak bermatu eta defenditzea ere.

Zuzendaritza Batzordeak zehapena ezarri ahalko die bazkideei Estatutuak, Arauak eta Erabakiak betetzen ez direnean, legezko xedapenetan eta hurrengo artikuluetan ezartzen diren hutsegiteen eta zehapenen larritasunarekin bat etorritik.

Zuzendaritza Batzordearen egikizuna da, zuzendaritza ahalmena betez, zehapenak ezartzea, Estatutu hauetan finkatzen den eran.

Hutsegiteari dagokion zehapena ezartzeko, bazkideari idatzizko jakinarazpena egin beharko zaio, zehapena sortu duten ekintzak eta zein egunetan izan ziren adieraziz.

Ezarritako zehapena finkoa den egunaren biharamunean hasi beharko da betetzen.

#### **14. artikulua.-** Hutsegiteen larritasuna.

Bazkideen edozein hutsegite arin, larri edo oso larritzat joko ahalko da, dituen ondorioen edo asmoaren arabera.

Ondorengo paragrafoetan egiten den hutsegiteen sailkapena eta finkapena soilik enuntziatiboak dira, hau da, horrek ez du esan nahi beste batzuk ere egon ezin daitezkeenik. Beste horiek aipatzen direnekin duten analogiaren arabera sailkatuko dira.

Hutsegite arinak. Ondoko hauek dira:

- Bazkideei, erabiltzaileei eta langileei zor zaien begirunea ez izatea, betiere hutsegite larri edo oso larritzat jotzen ez bada.
- Instalazioak eta zerbitzuak behar ez bezala erabiltzea.
- Elkartearen ondasun eta instalazioetan, bai eta hirugarrenenetan ere, kalte txikiak edo matxurak sortzea, egilearen zabarkeria edo zuhurtziagabekeriagatik.
- Elkartearen langileek edo arduradunek kirol, kultura edo aisialdiko edozein jarduerari buruz emandako aginduak ez betetzea, kalterik sortzen ez badu.
- Elkartearen argibide kartelak zein iragarki oholak baimenik gabe aldatzea.



- Bazkide-txartela beste norbaiti bidegabe lagatzea edo, instalazioetara sartzeko unean uneko kontroleko sistema bidegabeki erabiliz, instalazioetan sartzea erraztea.
- Izaera bertsukoa edo antzekoa den beste edozein arau-hauste.

#### **Hutsegite larriak. Ondoko hauek dira:**

- Hitzezko zein ekintzazko tratu txarrak, irainak eta begirune hutsegite larriak Elkaratearen bazkideei, erabiltzaileei eta langileei.
- Elkaratearen ondasun eta instalazioetan, edo hirugarrenek bertan utzitakoetan, kalteak edo matxurak sortzea, asmo horrekin egindako jardueren ondorioz.
- Bazkide-txartela beste norbaiti bidegabe lagatzea edo, instalazioetara sartzeko unean uneko kontroleko sistema bidegabeki erabiliz, instalazioetan sartzea erraztea, behin eta berriro.
- Elkaratearen barruan liskar, iskanbila, gehiegikeria nahiz istiluak sortzea edo haietan parte hartzea.
- Elkaratearen instalazioen barruan edozeini gorputz erasoak edo iseka larriak egitea.
- Elkaratean edo Elkaratearen kontra egindako hutsegite eta delituak, Zuzendaritza Batzordeak larritzat jotzen baditu.
- Elkaratearen ohiko jarduerak modu arruntean garatzea galarratzen edo eragozten duten beste ekintzak.
- Elkaratearen interes orokorren kontra doazen beste jarduera eta ez-egite desleialak, baldin hutsegite oso larritzat jotzen ez badira.
- Ezarritako zehapena haustea.
- Elkaratearen langileek edo arduradunek kirol, kultura edo aisialdiko edozein jardueraren funtzionamendu araubideari buruz emandako aginduak ez betetzea, kalte larria ekartzen badu.
- Hutsegite arinak behin eta berriro egin edo errepikatzea, nahiz eta izaera desberdinekoak izan, baldin hiru hilabeteren barruko epean egiten badira, lehenbizikoa egiten denetik aurrera.
- Izaera bertsukoa edo antzekoa den beste edozein arau-hauste.

#### **Hutsegite oso larriak. Ondoko hauek dira:**

- Gorputz eraso oso larria edo hitzezko zein ekintzazko tratu txarrak, irainak eta begirune hutsegite oso larriak Elkaratearen bazkideei, erabiltzaileei eta langileei.

- Elkartearen bazkide edo langileekin, edo haien artean, maiz liskarrak sortaraztea.
- Ebasketa edo lapurreta, bai Elkarteari bai edozein bazkideri, Elkartearen instalazioen barruan.
- Legez kanpoko drogen salerosketa Elkartearen barruan.
- Aitzakiarik gabeko zabarkeria nahiz zuhurtziagabekeria, hirugarrenentzako istripu arriskua edo instalazioetarako matxura arriskua ekar dezakeenean.
- Elkartearen jardueren garapen ohikoa galarazteko asmoarekin egindako norbanako nahiz taldeko ekintzak.
- Elkartean edo Elkartearen kontra egindako hutsegite eta delituak, Zuzendaritza Batzordeak oso larritzat jotzen baditu.
- Hutsegite larriak behin eta berriro errepikatzea, nahiz eta izaera desberdinekoak izan, baldin sei hilabeteren barruko epean egiten badira, lehenbizikoa egiten denetik aurrera.
- Izaera bertsukoa edo antzekoa den beste edozein arau-hauste.

#### **15. artikulua.-** Preskripzioa.

Beren larritasunaren arabera ondokoa izango da hutsegiteen preskripzioa:

- a) Hutsegite arinak: hiru hilabete.
- b) Hutsegite larriak: urte bat.
- c) Hutsegite oso larriak: hamazortzi hilabete.

Hutsegite hauen preskripzioa hasiko da kontatzen hutsegitea egiten den egunetik aurrera.

Preskripzioa eten egingo da espedientearen hasiera erabakitzen denetik aurrera, eta epea berriro konputatuko da espedientea hiru hilabete baino gehiago geldiarazita gelditzen bada.

**16. artikulua.-** Hutsegiteak zehatuko dira beren larritasunari erreparatuz eta aintzat hartuz arau-hauslea zer neurritaraino den errudun, araua hausteko zuen asmoa, bere adina eta gaitasuna, behin eta berriro egindakoa edo errepikatutakoa den eta arau-haustea larriagoa edo arinagoa egiten duten beste inguruabar batzuk.

**17. artikulua.-** Hutsegiteak, beren larritasunaren arabera, honela zehatuko dira:

- a) Arinak: idatzizko ohartarazpena, edo instalazioetan sartu, haiek erabili eta haiei onura ateratzeko debekua 1etik 30

egunera bitarteko epe batean, elkartekide izateagatik dituen eskubide guztiak epe berean bertan behera utzirik.

b) Larriak: instalazioetan sartu, haiek erabili eta haiei onura ateratzeko debekua 30etik 180 egunera bitarteko epe batean, elkartekide izateagatik dituen eskubide guztiak epe berean bertan behera utzirik.

c) Oso larriak: elkartekide izateagatik dituen eskubide guztiak 180tik 2 urtera bitarteko epea batean bertan behera utzi, edo Elkartetik kanporatua izatea.

**18. artikulua.-** Hutsegiteak dakarren erantzukizuna ondo-koengatik desagertuko da:

a) Zehapena betetzeagatik.

b) Hutsegiteen preskripzioagatik.

c) Zehapenen preskripzioagatik.

d) Dagokion helegitea baiesteagatik.

**19. artikulua.-** Arau-hauslea zer neurritaraino den errudun eta arau-haustearen larritasuna gorabehera, arau-hausleak, bere legezko tutoreak, edo Zuzendaritza Batzordeak baimendutako pertsonak, hala behar denean, sortutako kalte guztiak konpondu beharko ditu.

**20. artikulua.-** Hutsegite arintzat jo daitekeen arau-hauste baten berri izan bezain laster, Zuzendaritza Batzordeak, edo honek eskuordetutako pertsonak, berehala ebatziko du, interesatuari entzun ondoren.

**21. artikulua.-** Egindako arau-haustea larritzat edo oso larritzak jo daitekeenean, Zuzendaritza Batzordeak espedientea hasteko erabakia hartuko du, gertatutakoa argitzeko eta erantzukizuna norena den jakiteko. Horretarako, instruktorea eta idazkaria izendatuko ditu, eta interesatuari leporatzen zaiorenaren eta egindako izendapenen berri emango dio, mintzatu ahal izan dadin.

Behin instrukzioa amaitutakoan, Zuzendaritza Batzordeak espedientearen ondorioekin bat datorren erabakia hartuko du, eta erabaki hori interesatuari jakinaraziko zaio fede emateko moduan.

Ezarritako zehapena hasiko da betetzen bera finkoa izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontuan harturik egindako hutsegitea zer-nolakoa den, bere inguruabarrak, eta aurreikus daitezkeen kalifikazioa eta zehapena, Zuzendaritza Batzordeak erabaki ahalko du, nahi izanez gero, espedientatutako bazkideari Elkartearen instalazioetan sartu, haiek erabili edo haiei onura ateratzeko debekua ezartzea, edo elkartekide izateagatik dituen eskubide guztiak bertan behera uztea, espedientearen izapideak egiten diren bitartean. Gehienez ere hiru hilabeteko epe baterako ezarri ahalko du debeku hori Zuzendaritza Batzordeak, eta arau-hausleari jartzen zaion zehapena betetzeko aintzat hartuko da denbora hori, hutsegitearen izaeraren arabera hala badagokio.

**22. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeak, edo honek eskuordetutako pertsonak, ezarritako zehapen guztien kontra berraztertzeko helegitea aurkeztu ahalko da Zuzendaritza Batzordearen aurrean, hamar egun naturaleko epearen barruan. Hutsegite larrien edo oso larrien ondorioz ezarritako zehapenak badira, eta behin aurretik aurkeztu beharrekoa den berraztertzeko helegitea ezetsi ondoren, gora jotzeko helegitea aurkeztu ahalko da Batzorde Nagusiaren aurrean, honek egiten duen lehenbiziko bilkuran, ohiko zein ohiz kanpokoan, berraztertzeko helegitea ezetsi dutela jakinarazten den egunetik 30 egun naturaleko epearen barruan.

**23. artikulua.-** Zehapenak preskribituko dira hutsegiteetarako adierazi diren epe beretan, haiek ezartzen direla jakinarazteko egunetik kontatzen hasita.

---

### III. TITULUA

#### ZUZENDARITZA ORGANOAK ETA ATALAK

---

#### I. KAPITULUA

#### BATZAR OROKORRA

**24. artikulua.-** Bazkideen Batzar Orokorra botoa emateko eskubidea duten bazkideek osatzen dute. Bere funtzionamendua, eta Batzorde Nagusiarena, 28. artikuluan eta 31.etik

35.era bitarteko artikuluetan finkatutakoak arautzen du. Beste inorenak ez diren ondoko eskumenak izango ditu:

- a) Batzorde Nagusiko batzordekide konpromisarioak hautatzea.
- b) Elkartearen lehendakaria hautatzea.
- c) Estatutuak aldatzea, Zuzendaritza Batzordeak, Batzorde Nagusiko batzordekideen % 25ek edo botoa emateko eskubidea duten bazkideen % 15ek, proposatuta.
- d) Elkartea desegitea, Estatutu hauen 66. artikuluan eta hurrengoetan finkatutakoaren arabera.
- e) Onestea, Batzorde Nagusiak eskuordetuta, ohiz kanpoko aurrekontuak, bai eta Zuzendaritza Batzordeak onesteko proposatzen dizkion erabakiak ere.
- f) Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, ondasun higiezinak besterentzea.
- g) Elkarteko lehendakariaren zentsura-mozioari buruz eztabaidatu eta botoa ematea.

**25. artikulua.-** Batzar Orokorrak kargugabetu ahaliko du lehendakaria ohiz kanpoko bilkura batean egindako zentsura-mozio baten bidez. Zentsura-mozio hori botoa emateko eskubidea duten bazkideen % 15ek, gutxienez, proposatu eta sinatu beharko dute.

Zentsura-mozioarekin batean beste lehendakari bat hautatzeko proposamena egingo da, eta lehendakari berriak Zuzendaritza Batzorde berri bat izendatuko du. Bere agintaldiak iraungo du kargugabetutako lehendakariaren Zuzendaritza Batzordeari zegokion agintaldia bete arte.

Zentsura-mozioa ezesten bada, bera sinatu dutenek ezin izango dute beste bat aurkeztu agintaldi berean.

## **26. artikulua.-**

- a) Elkartearen Estatutuak aldatzeko, lehendakariaren zentsura-mozioa egiteko eta ondasun higiezinak besterentzeko erabakiak hartzeko, bertaratutako batzarkideen bi hereneko gehiengoa beharko da.
- b) Elkartea desegitea erabakitzeko, Batzarrean bertaratutako batzarkideen bi herenen onespina beharko da, betiere aldeko

botoak baldin badira, gutxienez, botoa emateko eskubidea duten bazkide helduen gehiengo absolutua.

c) Gainerako erabakiak hartzeko, bertaratutako batzarkideen gehiengo soila beharko da.

**27. artikulua.**- Batzar Orokorra osatzen duten guztien botoa norberarena da, ezin da eskuordetu eta bozketa egiten den egunean edo egunetan eman behar da.

## II. KAPITULUA BATZORDE NAGUSIA

**28. artikulua.**- Batzorde Nagusia Elkartearen gobernu-organo gorena da.

Honako hauek dira Batzorde Nagusiko kide, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea dutenak:

a) Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak.

b) Elkartearen lehendakari ohiak eta gaur egun bazkide diren fundatzaileak.

c) Kontu-azterlariak.

d) Botoa emateko eskubidea duten mila bazkideren  $\frac{1}{3}$ edo horren frakzio baten  $\frac{1}{3}$  multzo bakoitzeko, 33 konpromisario. Bazkideak, antzinasunaren arabera hurrenkeran, multzo horiei atxikiko zaizkie.

Multzo horietako bakoitzetik, eta multzo bakoitzean hautagai direnen artetik, botoa emateko eskubidea izan eta multzo bakoitza edo frakzioa osatzen duten bazkideek hautatuko dituzte 33 konpromisario horiek, sufragio unibertsal, libre, zuzen, berdin eta isilpekoaren bidez.

**29. artikulua.**- Batzorde Nagusiko kideak lau urteko epe baterako hautatuko dira, horretarako berariaz deitutako hauteskunde-egun batean.

**30. artikulua.**- Batzorde Nagusiaren bilkurak ohikoak zein ohiz kanpokoak izango dira, deialdian adierazitakoaren arabera.

**31. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeak egingo du Batzorde Nagusiaren ohiko bilkurarako deia, gutxienez bilkura egin baino hogeita hamar egun lehenago. Ohiz kanpoko bilkurarako deia gutxienez hamabost egun lehenago egingo du.

Bilkurarako deia bertaratzeko eskubidea duten bazkide guztiei helaraziko zaie, idatziz, eguneko aztergaiak, zein egunetan, zein ordutan, eta non egingo den adieraziz, eta bigarren deialdia badago, zein ordutan eta non egingo den adieraziz.

Batzorde Nagusia balioz eratu ahal izateko, batzordekideen gehiengo beharko da lehen deialdian.

Bigarren deialdian eratuko da zein ere den bertaratutako bazkide kopurua.

Batzorde Nagusian egon ahal izateko batzordekide bakoitzak nahitaez egiaztatu beharko du bere nortasuna, bazkide-txartelaren bidez, edo, bestela, NAN edo IFZaren bidez.

Nolanahi ere den, deialdirako finkatutako betebeharrak guztiak bete gabe ere, balioz eratu ahalko da baldin batzordekide guztiak badaude eta aho batez hala erabakitzen badute.

**32. artikulua.-** Batzorde Nagusia osatzen dutenen botoa norberarena da, ezin da eskuordetu eta bozketa egiten den egunean eta lekuan eman beharko da zuzenean.

**33. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren bilkuretan Elkarteko lehendakaria izango da batzordeburua, eta Zuzendaritza Batzordeko idazkariak jardungo du idazkari. Batzordeburuak eztabaidak zuzenduko ditu, hitz hartzeen hurrenkera finkatuko du, eta gaia aski eztabaidatutzat jotzen duenean, bozketa egitea erabakiko du.

**34. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren bilkuretan ezin izango dira deialdiaren eguneko aztergaien zerrendan berariaz ez dauden gaiak aztertu, ez eta horiei buruz erabakirik hartu ere.

**35. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren edozein bilkura motatan balioz emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak. Boto zuriak balioz emandakotzat hartuko dira.

Bozketan berdinketa gartatzen bada, beste bozketa bat egingo da, eta orduan ere berdinketak badirau, lehendakariak erabaki ahalko du boto ebazlearen bidez.

**36. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren ohiko bilkura urtean behin egingo da, eta beti apirilaren 30 baino lehen. Ondoko gaiak aztertuko ditu, besteak beste:

- a) Batzorde Nagusiaren azken bilkuraren akta onestea, bidezkoa bada.
- b) Aurreko urteko ekitaldi ekonomikoaren gastu eta sarreraren kontuak aztertu eta onestea.
- c) Urtean urteko ekitaldi ekonomikoaren ohiko aurrekontuak aztertu eta onestea, bidezkoa bada.
- d) Elkartearen jardueren oroitidazkia.
- e) Batzorde Nagusiaren aurrean zehapen auzietan aurkeztu diren helegiteak.
- f) Bazkideek ordaindu beharreko edozein diru-gainsari eta kuotak finkatzea.
- g) Kontu-azterlariak eta Hauteskunde Batzordea berritzea.
- h) Onestea ondasun higiezinaren gaineko kargak eratzeko.
- i) Onestea, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Estatutu hauek garatzen dituzten arautegi oro, batik bat Hauteskunde Araubidearena, Zehapenena eta Elkartearen Barne Erauzaren.
- j) Beste edozein gai, baldin eguneko aztergaienez zehar sartua bada eta Batzar Orokorraren eskumenen barrukoa ez bada.

**37. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren ohiz kanpoko bilkurak beharrezko jotzen den guztietan egingo dira, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita nahiz adin nagusiko hirurehun bazkidek, idazki arrazoitu baten bidez, eskatuta. Eskaera egin eta handik hiru hilabetera, gehienez ere, egin beharko da deialdia.

**38. artikulua.-** Legeek aldi oro finkatzen dutenaz gainera, honako hauek dira soil-soilik Batzorde Nagusiaren ohiz kanpoko bilkurak dituen eskumenak:

- a) Ohiz kanpoko aurrekontuak onestea.
  - b) Estatutuak aldatzea.
- Hori dela-eta Zuzendaritza Batzordeak batzorde berezi bat



izendatuko du aldaketa aztertzeko. Bazkideei epe bat emango zaie, behar bezain luzea, egin nahi den aldaketaren berri izan dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Nolanahi ere den, aldaketa Batzar Orokorrean aztertzen denean ere alegazio horiek defendatzeko eskubidea izango dute.

**39. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren bilkuren eguneko aztergaietan sartuko da bazkideek aurkezten duten edozein proposamen, betiere Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu badiote eta adin nagusiko ehun bazkidek abalatu bada. Bazkide hauek gehienez ere hiru laguneko batzorde bat izendatuko dute, Batzorde Nagusiaren bilkuran eguneko aztergaietan haiek eskatuta sartutako gai edo gaiak azal ditzaten.

**40. artikulua.-** Batzorde Nagusiaren eta Batzar Orokorraren bilkuren aktetan zehatz-mehatz azalduko dira emandako iritzia. Bertaratutako edozein bazkidek ala eskatuz gero, hitzez hitz azaldu beharko dira egindako proposamena edo gaitzespena, betiere Lehendakaritzak egoki jotako luzera gainditu gabe.

### III. KAPITULUA ZUZENDARITZA BATZORDEA

**41. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordearen esku dago Elkar-tearen administrazioa eta gobernu. Lehendakariak hautatuko dituen adin nagusiko hamar bazkidek, gutxienez, osatuko dute Zuzendaritza Batzordea.

**42. artikulua.-** Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eskumenak:

- a) Estatutu hauek aplikatzea.
- b) Batzorde Nagusiaren eta Batzar Orokorraren bilkuretan hartutako erabakiak betetzea.
- c) Elkar-tearen barne funtzionamendurako arauak idatzi, aldatu eta aplikatzea, estatutuetan azaltzen ez diren alderdietan.
- d) Batzar Orokorraren bilkuretarako deiak egitea.

e) Lehendakaria eta Batzar Orokorraren batzarkide konpromisarioak hautatzeko hauteskunde orokorretarako deia egitea.

f) Elkartearen langileak kontratatzea eta kanporatzea.

g) Bazkide berriak onartzea.

h) Elkartearen instalazioen alogera edo zerbitzuen lagapena kontratatzea.

i) Elkartearen instalazioak eta zerbitzuak al bait hobekien zaindu eta garatzeko behar diren lanak kontratazea eta proiektuak eskatzea.

j) Aseguru polizak izenpetzea.

k) Nola Batzar Orokorretan eta Batzorde Nagusietan, hala Zuzendaritza Batzordearen beraren bilkuretan erabakitakoa behar bezala betetzeko, eskritura publiko eta kontratu pribatu guztiak eman eta sinatzea.

l) Txekak eta merkataritza trafikoko gainontzeko agiriak jaulkitzea, irekita diren kontu korrante, kreditu kontu, libreta nahiz ezarpenen kargura, eta, gehiago ireki behar badira, haiek irekitzea. Zuzendaritza Batzordeak egoki jotzen dituen batzordekideei ahalmena emango die, haietako bi edozeinek batera sinatuta, txekak egin ditzaten banketxetan eta aurrezki kutxetan diru-funtsak ateratzeko.

m) Ekitaldi ekonomikoaren, aurrekontuen eta oroitidazkiaren onespina Batzar Orokorrari proposatzea.

n) Elkartearen atalen jarduerak zuzentzea.

ñ) Erakunde publiko eta pribatuei diru-laguntzak eskatzea.

o) Elkartearen interesak babesteko komenigarri iritzitako ekintzak egitea, horretarako beharrezkoa bada, egoki jotzen dituen lagunei behar hainbat ahalmen emanaz.

p) Elkarreak ongi funtziona dezan egokitze jotzen dituen neurri guztiak hartzea, betiere soil-soilik Batzorde Nagusiaren edo Batzar Orokorraren eskumenekoak ez badira.

q) Elkartearen helbidea aldatzea.

**43. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordearen karguak oheretakoak dira eta ez dute ordainsaririk. Bertan hutsen bat gertatuz gero lehendakariak izendatuko du ordezkia egoki jotzen badu eta, nahitaez, batzordekide kopurua betetzeko.

**44. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordea hilabetean behin, gutxienez, bilduko da, egoki jotzen dituen egun-orduetan. Era berean, lehendakariak hala erabakitzen duenean, edo bi batzordekidek hala eskatzen dutenean ere, bilduko da, eta aztertuko den gaia adierazi beharko da.

Bertaratutakoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak. Bozketak isilpekoak izango dira afera pertsonalei buruzko gaiak aztertu behar direnean, direla bazkideenak, langileenak, edo Elkartearekin merkataritza edo beste motaren bateko harremanak izango dituzten hirugarren pertsonenak. Gainerakoetan lehendakariak erabakiko du bozketaren modua.

#### **IV. KAPITULUA ELKARTEKO LEHENDAKARIA**

**45. artikulua.-** Lehendakariak du bere gain Elkartearen ordezkarietza, Zuzendaritza Batzordearen ahalmenen kalterik gabe. Lau urteko agintaldia beteko du, eta jarraian soilik beste lau urteko agintaldia betetzeko hautatu ahalko dute. Batzar Orokorren bilkurak hautatuko du lehendakaria.

Hauek dira bere eskumenak:

- a) Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Nagusiaren eta Batzar Orokorren bilkuretarako deiak egitea eta haien buru izatea.
- b) Zuzendaritza Batzordearekin bat, beharrezkoak diren egintzak eta kontratuak eman eta izenpetzea.
- c) Elkartearen ordezkarietza betetzea, edozein motatako erakunde ofizial eta pribatuen aurrean.
- d) Elkartearen sinadura eta zigilua erabiltzea, bera ordezkatzuz.
- e) Elkartearen ziurtapenak, igorpenak eta kontuak ikus-onestea.
- f) Premiazkoak direlako, behar diren neurri guztiak hartzea, eta Zuzendaritza Batzordeari egindakoaren berri ematea.
- g) Zuzendaritza Batzordearen kideak izendatu edo kargugabetzea.

**46. artikulua.-** Lehendakariak ondokoak izendatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideen artean:

- Lehedakariordea, lehendakaria ordezkaturko duena honek, edozein zirengatik, bere eginkizunak denboraldi batez bete ezin dituenean.

- Idazkaria, Elkartearen agiri guztien ardura izango duena. Orobat, Batzorde Nagusiaren, Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza Batzordearen bilkura guztien aktak egingo ditu, lehendakariaren oniritziarekin.

- Diruzaina, legez egin beharreko kontu-agirien ardura izango duena.

**47. artikulua.**- Lehendakariaren kargu uzte, heriotza edo kargugabetzea gertatzen bada, eta, hortaz, bere Zuzendaritza Batzordearena, Zuzendaritza Batzordeak jardunean segitu beharko du harik eta, Estatutu hauen 56. artikuluan finkatutako epeetan horretarako berehala deituta, hauteskundeak egiten diren arte. Hala egiten ez badute batzordekideak gaitasungabetuak izan ahalko dira.

Hala eta guztiz ere, Zuzendaritza Batzordeak eginkizunak betetzeari uzten badio, zuzen-zuzenean Batzorde Kudeatzaile bat eratuko da, zituzten beharkizunak bete ez dituztenei eskatuko zaizkien erantzukizunen kalterik gabe. Jardunean dauden bazkide konpromisarioetatik zozketaz aukeratutako hamar bazkidek osatuko dute Batzorde Kudeatzailea eta haien artetik batzordeburua hautatuko dute. Berdinketa ematen bada adin handienekoa hautatuko da. Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hartuko ditu bere gain Batzorde honek, finkatutako epeetan hauteskundeetarako deia berehala egiteko asmoz, eta elkartearen behin-behineko gobernuak eskatzen dituen ahalmenak izango ditu soilik, ekonomiaren arloko beharrak betetzeari eta gai arruntak bideratzeari dagokienez.

## V. KAPITULUA ATALAK

**48. artikulua.**- Elkartearen xedeak hobeki bete daitezen Atalak eratuko dira. Atal horiek, Estatutu hauek xedatutakoaren barruan, beren eremuko jarduerak antolatuko dituzte, Zuzendaritza Batzordearen ardurapean. Barne-eraentzako arautegian erregulatuko da haien funtzionamendua.

**49. artikulua.-** Elkarteko Lehendakariak izendatuko ditu Ataletako arduradunak. Hala ere, ezaugarri bereziak dituelako, Peña atalaren arduradunak atal horietako bazkideek proposatuko dituzte, lehendakariak izenda ditzan.

**50. artikulua.-** Atala antolatzeko behar diren neurri guztiak hartuko dituzte ataletako arduradunek, eta atalaren jardueren erantzukizuna izango dute Zuzendaritza Batzordearen aurrean.

---

## IV. TITULUA HAUTESKUNDE ARAUBIDEA

---

### I. KAPITULUA HAUTESKUNDE BATZORDEA

**51. artikulua.-** Hauteskunde Batzordea bost batzordekide titularrek eta bi ordezkok osatutako organo kolegiatua da. Batzordekide titularrek hautatuko dute batzordeburua, eta honi dagokio hauteskunde prozesu osoa, eta batik bat bozketak, zuzen garatzea, botoa eman nahi duten bazkideek hala egiteko eskubidea duten egiaztatzea, eta botoen zenbaketa egitea, horiek guztiak aurkeztutako hautagaitzen ikuskatzaileek gainbegiratuta.

Ordezkoek kargua hartuko dute, nahitaez, hutsuneren bat gertatzen denean.

**52. artikulua.-** Batzorde Nagusiak hautatuko ditu Hauteskunde Batzordeko kideak, hauteskundeak egin aurreko bilkuran, ohikoan zein ohiz kanpokoan, eta karguari utziko diote Hauteskunde Batzorde berria hautatzen denean.

**53. artikulua.-** Ondokoak dira hauteskunde prozesuaren egin-tzak:

a) Boto eskubidea duten bazkide guztiei hauteskundeetarako deiaren eta hauteskunde-egutegiaren berri ematea, hauteskundeak egin baino hirurogei egun natural lehenago.

- b) Hautagaitzak onartu eta argitaratzea.
- c) Boto-eskubidea duten bazkideek boto ematea.
- d) Hautetsiak aldarrikatzea.
- e) Aurkezten diren erreklamazioak eta eskaerak ebaztea, Jurisdikzio Arruntean aurkez daitezzen galarazi gabe.

**54. artikulua.-** Konpromisario izateko hautagaitza idatziz aurkeztu beharko da eta aurkezteko epea hauteskundeetarako deia egiten den egunean hasi eta hauteskundeak egin baino hogeita hamar egun lehenago amaituko da.

**55. artikulua.-** Behin baliozkotzat jotako hautagaitzak onartutakoan, boto-eskubidea duten bazkideei jakinaraziko zaizkie, Elkarteko iragarki oholean jendaurrean jarritz.

**56. artikulua.-** Elkarteko lehendakaria izateko hautagaitzak hauteskundeak egin baino hogeita hamar egun lehenago aurkeztu beharko dira. Hautagaitzarekin batera lehendakari gaiari buruzko datuak eta adin nagusiko hogeita hamabost bazkidek sinatutako abala ere aurkeztu beharko dira, bazkide horien izen-deiturak eta bazkide-zenbakia adierazita. Hautagaitzak aurkezten direnetik hauteskundeak egin arte Elkarteko iragarki oholean jendaurrean jarriko dira onartutako hautagaitzak, haien abala ematen duten bazkideak zein diren adieraziz.

**57. artikulua.-** Boto gehien jasotzen dituen lehendakari gaia izango da lehendakaria, eta boto gehien jasotzen dituzten bazkide guztiak Batzorde Nagusiko konpromisario izango dira. Hautagai nahikoa ez badago, aurkeztutakoak joko dira zuzen-zuzenean hautetsizat, eta zozketa eginez gainerakoak, Estatutuetan aurreikusitako kopurua osatu arte, betiere mila bazkideren -edo horren frakzio baten- multzo bakoitzaren barruan.

**58. artikulua.-** Aurreikusitako epean hautagaitzarik aurkeztu ez bada, edo bat bakarra aurkezturik, horrek Bazkideen Batzar Orokorraren onarpena lortzen ez badu, jardunean den Zuzendaritza Batzordeak jarraituko du harik eta, bi hilabeteko epearen barruan, berriro hauteskundeak egin arte. Bigarren hauteskunde hauetan ere hautagaitzarik aurkezten ez bada,

zozketa eginez hautatuko dira Zuzendaritza Batzordeko ki-deak, hamar guztira, bazkide konpromisarioen artetik, eta haiek hautatuko dute Elkarteko lehendakaria haien artetik. Honela hautatutako karguak ohorezkoak dira, ez dute ordain-saririk eta lau urteko iraupena izango dute.

---

## V. TITULUA

### ONDAREA ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK

---

**59. artikulua.-** Elkarreak dituen ondasun, eskubide eta bete-behar guztiek osatzen dute Elkarrearen Ondarea, zeinak urtez urteko Balantzean agertzen baitira. Ondare garbia, 2007/12/31n onartutako azken kontu-ekitaldiko balantzearen arabera, 2.912.556,20 euro da.

**60. artikulua.-** Bere xedeak bete ahal izateko hauek dira Elkarrearen baliabideak:

- a) Bazkideen kuotak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak.
- b) Antolatzen dituen zerbitzu eta ikuskizunetako irabaziak.
- c) Kontratatzan dituen errentamenduen zenbatekoa.
- d) Edozein pertsonak zein entitatek ematen dizkion dohaintzak eta dirulaguntzak.
- e) Zuzenbidearen barruan lorturiko beste edozein diru-kopuru.

**61. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeak gaitasun nahikoa dutela jotako bi bazkide proposatuko dizkio Batzorde Nagusiari, kontu-azterlarizat hautatuak izan daitezen. Kontu-azterlari karguak agintaldiaren iraupena izango du eta berriro proposatua eta hautatua izan ahalko da. Ohorezkoa izango da eta ez du ordainsaririk izango.

Ohiz kanpoko zio, gaixotasun edo heriotzagatik kargu uztea gertatzen bada, Zuzendaritza Batzordeak bera ordezkatzeko ahalmena izango du, Batzorde Nagusiaren hurrengo bilkuran beste kontu-azterlari bat proposatuz. Zuzendaritza Batzordearen proposamena bertaratutakoen gehiengo soilaz ontzat hartzen ez bada, behar bezala kualifikatutako aditu batek egingo du kontu-azterlaritza.

Nolanahi ere den, Zuzendaritza Batzordeak, agintaldi bakoitzaren amaieran, kanpoko kontu-ikuskaritza bat egingo du, behar den titulazioa duen aditu batekin kontratatua.

**62. artikulua.-** Ondokoak dira kontu-azterlarien lan eta zereginak, bai eta bete beharko dituzten eginkizunak ere:

a) Elkartearen ekitaldi bakoitzaren amaieran Elkartearen kontabilitatea eta liburu ofizialak berrikusi eta ikuskatzea. Horretarako, Elkarteari eta Zuzendaritza Batzordeari eskatu ahalko dizkiote beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dituzten agiri, faktura, frogagiri eta azalpen oro.

b) Urteko txostenean, Zuzendaritza Batzordeari beren lana hobeki betetzeko eta, hortaz, Elkartearen funtzionamendu eta kudeaketa hobea egiteko, ekonomia eta finantzaren arloetan komenigarri jotzen dituzten hobekuntza eta ekimen guztiak proposatzea.

c) Elkartearen egoera ekonomikoaren berri Batzorde Nagusiari urtero ematea, bilkura egiten den egunean. Komenigarri jotzen dituzten balantzeko kontu-sail, gastu eta diru sarrera guztiak argitu eta zehaztea, urteko ekitaldian Zuzendaritza Batzordeak egin duen ekonomia kudeaketari buruz txostena eginez.

Kontu-azterlariak, erabiltzen dituzten agirien eta datuen konfidentzialtasun eta garrantziagatik, ezin izango dute horien erabilera publikoa egin, eta zuhurtasuna gorde eta manerak zaindu beharko dituzte une oro.

**63. artikulua.-** Elkarreak ez du irabazi-asmorik. Horregatik, bai kuotak, bai beste edozein diru-ekarpen, Estatutu hauen laugarren artikulua finkatzen dituen xedek bete daitezzen erabiliko dira.

**64. artikulua.-** Ondoko kuota motak daude ezarrita:

a) Instalazioen hasierako amortizazioa, edo sarrera kuota, Elkartekide izan nahi duen orok ordaindu beharrekoa.

b) Aldizkako kuotak, instalazioen eta zerbitzuen mantenimendurako bazkideek ordainduko dutena.

c) Ohiz kanpoko kuotak.



---

## VI. TITULUA

### ELKARTEAREN LIBURUAK

---

**65. artikulua.-** Elkarateak ondoko liburu edo euskarri informaticoak eraman beharko ditu:

- a) Bazkideen erregistro-liburua, non agertuko baitira beren izen-deiturak, NAN zenbakiak, eta bazkide-zenbakiak eta, hala gertatzen denean, Elkaratean betetzen dituzten ordezkariak, gobernu edo administrazio karguak, adieraziz bazkide izaten noiz hasi zen edo noiz utzi zion bazkide izateari, Elkaratearen kargu bat izanez gero zein egunetan hartu zuen jabetza eta zeinetan utzi zuen, eta hala balitz, ezarri zaizkion zehapenak.
- b) Akta liburua, Batzar Orokorraren, Hauteskunde Batzordearen eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuren aktak jasoko dituenak. Zuzendaritza Batzordearen lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak.
- c) Kontabilitateko liburua eta ondasunen inbentarioko liburua, ondokoak jasoko dituztenak: Elkaratearen ondarearen zerrenda, eskubideen eta betebeharraren eta diru-sarreraren eta gastuena, bertan zehaztuz diru-sarrerak nondik datozen eta gastuen inbertsioa edo xedea, indarrean diren legeekin bat etorriz.

---

## VII. TITULUA

### ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDAREAREN ERABILERA

---

**66. artikulua.-** Elkartea denbora-mugarik gabe da eratua. Hala ere, Bazkideen Ohiz Kanpoko Batzar Orokorrak, horretarako bereziki deituriko bilkuran, Elkartea desegiteko erabakia hartu ahalko du, betiere bazkideen hirutik biren gehiengoak hala erabakitzen badu.

**67. artikulua.-** Elkartea desegiteko erabakia hartzeko ondoko pausoak emango dira:

- a) Zuzendaritza Batzordeari idatziz hala eskatzea, Elkartea osatzen duten adin nagusiko bazkideen erdiak baino bat gehiago den kopuru batek, gutxienez, sinaturik.
- b) Zuzendaritza Batzordeak eskaera horren berri emango die bazkide guztiei eta Batzar Orokorraren ohiz kanpoko bilkurrarako deia egingo du, bilkura egin baino hilabete bat lehenago.

**68. artikulua.-** Elkartea desegiteko erabakia hartzen bada, dagoen eskudirua erabiliz berehala kitatuko dira Elkarateak or-

daintzeko dituen betebeharrak. Horren ondoren diru-gerakina baldin badago, Nafarroako Foru Erkidegoan helbidea duten irabazi-asmorik gabeko Instituzioei emango zaio.

Elkartek duen eskudiru hori nahikoa ez bada, Batzorde bat osatuko da, jardunean dauden konpromisarioen artetik zozketaz aukeratutako hamar bazkidek osatua. Batzorde horrek ondasun guztiak bere gain hartu eta saldu egingo ditu, eta lortutako diruarekin ordainduko ditu dauden betebeharrak. Gelditzen diren ondasunen diru-gerakina Nafarroako Foru Erkidegoan helbidea duten irabazi-asmorik gabeko Instituzioei emango zaio.

Garaikurrak Iruñeko Udalari emango zaizkio gordailuan, sortzen den antzeko lehen Elkarteari, horretarako bete behar diren beharkizunak bete ondoren, emateko ardurapean.

### **AZKEN XEDAPENAK**

1.- Estatutu hauek indarra hartuko dute Bazkideen Ohiz Kanpoko Batzar Orokorren bilkurak onetsi eta dagokion Erregistroan inskribitu ondoren.

2.- Behin onetsi eta legeztatutakoan, Elkartearen Idazkaritzan egongo dira bazkideen eskura.

### **AZKEN EGINBIDEA**

Estatutu hauek hirurogeita zortzi artikulua eta bi azken xedapen dituzte. Hamazazpi orri zenbakitu betetzen dituzte, eta orri bakoitzak zigilua eta idazkari jaunaren sinadura eta lehendakari jaunaren ontzat emana ditu. Bazkideen Ohiz Kanpoko Batzar Orokorren onartu zituen, horretarako bereziki deituriko bilkura batean, bi mila zortziko martxoaren zortzian.

Honekin batera doa, eranskin gisa, Ohiz Kanpoko Batzar Orokorren bilkura horren Aktaren Ziurtagiria.

Eta hala ager dadin eginbide hau egin dut Iruñean, bi mila zortziko martxoaren zortzian.

O.E.  
LEHENDAKARIA



D. JAVIER IGNACIO LABAYRU ELIZALDE

IDAZKARIA



D. IÑAKI AZKONA MORENTIN